

## KASU, BEREHALA DA MUNDUA SORGINEN MENPE!

Arantxa Camus

*Omize, 13 urte*

Egun batez, munduan lau herri bakarrik zirelarik, horietako bat, besteak bezala, herri alai bat zen, Zugarramurdi deitua, non denak ongi bizi baitziren. Herritik ez hain urrun, oihan aldean, gizon bat bizi zen bere zortzi gatuekin. Gizon horrek Pantxo zuen izena. Bere etxearen inguruan, erreka argi bat isurtzen zen ezteki eta jostari, eta bitxia zen doi bat: eguzkiaren ekiadarrek argitzen zutelarik, kolore horikoa iduri zuen eta ur azpiko harriak liranjak, inork ez zekielarik zergatik. Errekaren zeharkatzeko, zurezko zubi zahar bat zegoen. Etxea aski handia zen, bizpahiru bizitza zituen; gatu bakoitzak ganbera handi eta eroso bat zuen.

Pantxok gatuak maite zituen, bereziki gatu beltzak. Abere horiek *etxeke jaunak* iduri zuten, ez zuen etxeke nagusiak manatzen; animalia horiek nahi zutelarik jan, denak gizonaren inguruan miauka ari ziren; nahi zirelarik kanpora joan gatu batek borta erakusten zuen. Gizona bere gatuaren esklabo bilakatua zen. Haientzat dena egiteko prest zen. Animalia bat eri zelarik, eta eritasun ttipiena izanik ere, munduko marexal onenaren etxera joaiten zen, munduko beste muturrean bazen ere. Nahiz eta gatuak esklabo gisa tratatu, kontent eta ongi bizi zen gizona.

Pantxok ez zekien batere gatu beltzak sorgin bilakatzen zirela pata lehertzerakoan, eta zorte bat emaiten zutela. Hori ez zekien bakarra zen; Zugarramurdiko beste biztanle guziek, aldiz, jakin-nean ziren eta inork ez zuen gatu beltzik etxean. Pantxo ez en sekula herrira joaiten, salbu bere gatu bat eri zelarik edo janaria erosi behar zuelarik. Hala ere, norbaitek zerbait erraiten ziolarik ez zuen hitzik ateratzen: egiten zuen munduan bere gatuekin bakarrik bizi balitz bezala.

Bainan egun batez, gatuak beste egunetan baino goseago zirelarik, Pantxoren inguruan miauka eta miauka ari ziren, gero eta finkiago. Gizonak espres egin gabe, abere baten pata lehertu zuen. Eta handik minutu zenbaiten buruan, bere gatu beltz ederrak emazte bilakatu ziren, ez zortzi emazte, bainan hamar aldiz haboro. Ez ziren beste emakumeak bezalakoa, bazituzten ile beltz kuskulatuak nolana-hi orraztuak, izar itxurako irudi beltzak begien inguruan, sudur luze-luzea kalitxa itsusi bat zutelarik alde batean. Denek arropa berdina zuten: beltza, tinkoa eta urratua leku zenbaitetan. Laburbiltzeko, beltzez jantziak ziren eta horren arabera ageri zen kolore beltza gustatzen zitzaie. Denek elgarren egite zuten.

Pantxok so egiten zien ahoa zabalik eta bere bihotzak gero eta fiteago joiten zuen beldur zelako. Bat-batean, sorgin batek burua itzuli zuelarik gizonari buruz eta aintzinatzen hasi zelarik bereganana, Pantxo ziuntaz joan zen herri aldera beste biztanleen abisatzera.

Herrira heltzean, gizonak bere istorioa kondatu zion ikusi zuen lehen biztanleari. Herriko gizonak ez zuen sinesten; beraz, buruzagiarengana eraman zuen. Han, ikusi zuen guzia salatu zuen Pantxok eta, bistan dena, emazteak deskribatzea ahortzi gabe. Buruzagia ondoko gelara joan zen. Handik denbora guttira, bi gizonengana joan zen liburu lodi eta zahar errautsdun bat zeramalarik. Eta hirurok liburu horretan txerkatu zuten emazte misterios horien berri eman zezakeen zerbait.

Bi oren liburu horretan txerkatu-eta, azkenean, kausitu zuten behar zutena. Irakurgeti horrek erraiten zuen emazte misterios horiek *sorginak* zirela; preso zirenez, gatu beltz batzuen itxura hartzen zuten. Sorgin bilakatzen ziren norbaitek pata lehertzen bazien eta, orduan, zorteak botatzen zituzten askatasunaren pozez. Orriaren azpian oharño batek zioen etxe bakotzeko gatu beltzak hartzen zituztela sorgin bihurtzeko. Hori irakurri-eta, buruzagiak erran zuen ezin zituztela munduko gatu beltzak hartu; beraz, hirurok joan behar zutela jendeen abisatzera.

Zugarramurdiko jendea abisatu zuten sorginen arazoaz eta joan ziren beste hiru herrietara ere, liburu zaharra ahortzi gabe, haatik, emazte itsusiak ikusten baldin bazituzten ere...

Lehen herrira heldu-eta, herri hortako buruzagia abisatu zuten eta erran zioten etxe bakotzeko gatu beltzak ehaiteko. Buruzagiak problemarik gabe ulertu zuen. Bi egun iragan-eta, etxeetako gatu beltz guziak eho zituzten eta herriko jendeak

zinez eskertu arazoa ulertu eta konpontzen laguntzeagatik. Hiru gizonak bidaia segitu zuten.

Bigarren herrian lehenengoan bezala egin zuten, bainan apur bat zailago izan zitzairen, jende zenbaitek ez zutelako nahi haien gata hil zedin; hala ere, aski laster ulertu zuten.

Hirugarren herrian inork ez zuen gatu beltzik. Horien ustez zorigaitza ekartzen baitzuten. Orduan Zugarramurdiko bidea hartu zuten.

Bainan bidean sorginak ikusi zituzten. Buruzagiak liburu zaharrea so egin zuen ikusteko nola hiltzen ahal ziren. Irakurgetiak erraiten zuen urak zituela ehaiten. Beraz, ondoan zen erreka ur xorta bat hartu zuten botela batean eta sorginei igorri. Denak eho zituzten, bat salbu. Azkena ezka-pi zen. Bainan ez zen problema handi bat, ez beitzen aldizkatzen ahal.

Zugarramurdira heldu-eta, denak kontent ziren haien ikustez eta jakitez irabazi zutela.

Gaua heldu-eta, Pantxok berriz gogoan erabili zuen abentura hori eta zalumalu joan zen buruzagiaren ikustera, erraiteko gatu beltzak oro ez zituztela eho, ahatze zutela zikin-ontzietan bizi zirenak ehaitea. Buruzagiak herritarrak elkartu zituen berri txar horien erraiteko eta denek sorginak eho behar zituztela herrira jiten baziren.

Egun zenbaiten buruan sorginak herrira sartu ziren. Harritarrak ur botaka ari ziren emazte itsusi horien ehaiteko, bainan uste ez zutena gertatu zen: denbora apur bat isilik egon eta sorginak joan ziren.

Hilabete zenbaiten buruan ez ziren herrira jin, bainan zero beltz batek zero urdin argia estali zuen. Horrek erran nahi zuen mundua sorginen menpe zegoela eta Zugarramurdiko herritarrak esklabo.